

# ZARAGUETA HERRI ESKOLA

## HIZKUNTZA PROIEKTUA



## SARRERA

Ezagun da azkeneko urteetan aldaketa ugari gertatu direla gure artean. Hizkuntzen esparruari dagokionez, globalizazioak eta oraingo egoera soziolinguistikoak testuinguru berrietan aritzera derrigortu ditu ikasleak eta eskola komunitatea. Era berean, eskolan landu beharreko hizkuntza kompetenziaren esparrua zabaldu egin da, hain justu, zeharkako gaitasun gisa hartu delako. Hortaz, komenigarria da gure eskolak hizkuntzen bueltan egindako ibilbidea eta egungo egoera aztertzea, askotariko kezkak azaltzea eta horien inguruko irtenbideak eraikitzea. Horretarako, ezinbestekoa da gure egungo errealitatetik abiatuta, hausnarketa egitea eta adostasunetara iristea.

Zaragueta Herri Eskolako Hizkuntza Proiektua aurkezteko xedea du gune honek, aipatutakoak kontuan hartuta. Hain zuzen, ikastetxeko hizkuntzei buruzko erabakiak, eginbideak eta konpromisoak modu koherentean biltzen ditu. Alde batetik, hizkuntzen irakaskuntzari dagozkienak, eta bestetik, erabileraren ingurukoak. Izan ere, kompetenzietan oinarritutako hezkuntzan, gela esparrukoak ezezik, esparru ez formaletako egoera informalek berebiziko garrantzia dute. Horiek guztiek kompetentzia guztien garapenari eragiten diote eta, batez ere, komunikaziorako kompetenziari. Horretan, hizkuntzen ezagutzak, haien erabilerak eta hizkuntzekiko zein hiztunekiko jarrerek zehazten dute hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia espezifikoaren garapen maila.

Gune hau bizirik dagoen proiektu baten isla da eta, prozesu baten ondorioa den heinean, garrantzitsua da ikastetxeko kide guztien parte hartzea eta inplikazioa. Azken finean, komunikazio gaitasunaren garapena hezkuntza eragile guztion zeregina da.

## EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Orioko herria arnasmune den arren, euskarari dagokionez baditu erro-errotik arazoak. Etxetik euskara jaso duten askok ama hizkuntzari maitasun handia adierazten dioten arren, erraztasun handiz jaisten dira espaloitik gaztelaniaz hitz egiteko. Bestalde, badaude herrian bizitza osoa daramaten eta euskara ikasi ez duten oriotarrak. Beren seme-alabak eskolatzen direnean euskaraz ikasten duten arren, zaila zaigu belaunaldi hauek euskaldun aktibo izatea.


Dena den, aipagarria da Zaragueta Herri Eskolak azken hamarkadetan egin duen euskalduntze lana. Orain ere hortan ari gara aurkezten zaizkigun zailtasunei ahal dugun hobekin aurre eginez.

Zaragueta Herri Eskolak Orio herriko hezkuntza publikoa eskaintzen du, D ereduari. Ikastetxe Publiko Integratua (IPI) izanik, hiru etapa biltzen ditu: Haur Hezkuntza (57 ikasle), Lehen Hezkuntza (123 ikasle) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (88 ikasle). Aurtengo langilerari dagokionez, guztira 49 irakasle eta hezitzaile ditugu; jangelako begiraleak, 10; eta irakasle ez direnak, 6.

Egun, askotariko ikasleria daukagu, baita jatorriari dagokionez ere. Beraz, aniztasuna bada gure hezkuntza komunitateko ezaugarria eta altxorra. Hona hemen, gure ikasleen eta familien hizkuntzei eta jatorriari buruzko datuak:

### Zaragueta IPIko ikasleen etxeko hizkuntza


2021-2022 ikasturtea



# Zaragueta IPIko jatorri aniztasuna

2021-2022 ikasturtea

- Maroko
- Argentina
- Senegal
- Nikaragua
- Pakistan
- Mendebaldeko Sahara
- Brasil
- Errusia
- Honduras
- Kolonbia
- Kuba
- Txile
- Argelia
- Bolivia
- Dominikar Errepublika
- Ekuador
- Espainia
- Paraguay
- Uruguay
- Errumania
- Ghana
- Katalunia
- Mali
- Mexiko
- Venezuela



## IRAKASLEEI EGINDAKO GALDETEGIAREN ONDORIOAK

### Hizkuntzarekin lotutako antolamendua

Ikastetxean badago sisteman sartzen diren ikasle etorri berrientzako Harrera Plana. Egokia deritzogun arren, komeni da tarteka berrikustea eta gogoraraztea. Bestalde, ikasleen aniztasunari begira, hizkuntzarekin lotutako antolamendu neurri bereziak honakoak dira:

- HIPI irakasleak
- Bikoizketak
- Bi irakasle gelan
- Banakako laguntzak
- LHko errefortzuak zikloka
- DBHko 1. zikloan Euskara errefortzua
- Euskara indartzeko ahalegina maila guztietan

### Hizkuntza irakasleengandik jasotakoa

Orokorrean, ikasleen euskarazko ahozko zein idatzizko adierazpenak hobetu daitezke eta, kanpoko Ebaluazio Diagnostikoen emaitzak aztertuta, beste hizkuntzetako maila ere ez da hain ona. Iruditzen zaigu irakurmenaren ulermenean indar berezia egin beharko genukeela, eta, irakurtzeko tarte gehiago eskaini gelan. Noski, denbora horretan irakasleok eredu izan behar dugu, geu ere irakurle agertuz.

Hizkuntzaren irakaskuntzaren dimentsioei dagokienez, etapak gorantz doazen heinean, entzumena, esate baterako, gutxiago lantzen da. Ziurrenik, Atzerriko Hizkuntzaren irakaskuntzak hobeto zaintzen du dimentsio hori. Ahozkotasuna da beste premiazko jomuga, euskararen ezagutzaren eta erabileraren beherakadaz ohartzen baikara. Horren harira, eremu formalean eta ez-formaletan esku hartzeko premia badugu, baita irakasleok formatzekoa ere. Era berean, euskalkiari buruzko kezka agertu da.

Hizkuntzetako programazioetako helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, orokorrean ez daude bateratuta, ezta metodologia ere. Uste dugu horiek guztiak adostuak eta bateratuak izateak lagunduko lukeela ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan. Zentzu horretan, Hizkuntzaren Trataera Bateratuari buruzko formakuntza ontzat hartzen da, betiere ikuspegi praktiko batetik. Errubriken ezagutza eta erabilera, esate baterako, komenigarria litzateke.

Ikasleen aniztasunaz jakitun, eleaniztasunean hezteko asmoarekin, etxeko hizkuntzei eskolan leku gehiago egitea aberasgarritzat jotzen dugu. Hortaz, Haur

Hezkuntzan jada baduten presentzia (ipuinak, gurasoei gonbidapenak...) beste etapetara zabaltzea ondo deritzogu.

### **Arloetako eta ikasgaietako irakasleengandik jasotakoa**

Arloetako irakasleak bat datoz hizkuntzetakoek diotenarekin, alegia, ikasleen ahozko zein idatzizko adierazpenak nahiko urriak direla. Idazmenaren ulemenari garrantzi handia ematen diote eta etapa guztietan egiten da hiztegia aberasteko ahalegina, beti ere mailaren araberako lanketa eginez. Orokorrean, komunikazio gaitasuna hobetzeko beharra azpimarratzen da, eta bi alderdi nabarmentzen dira: alde batetik, euskarazko ahozko ekoizpenak (aurkezpenak, esate baterako) eta bestetik, irakurmenaren ulermena. Ondo legoke horri buruzko formakuntza praktikoa jasotzea.

Ebaluazioari dagokionez, arloei dagozkien hizkuntzaren dimentsio guztiak ez dira modu berean ebaluatzen eta ontzat hartzen da modu bateratuan egitea, gutxieneko adostasunak finkatuta. Horri lotuta, komenigarria litzateke laburpenak, eskemak, ikerketa-lanak, ahozko azalpenak eta abar egiteko prozedura bateratuak jarraitzea.

## IKASTETXEAREN HIZKUNTZA HELBURUAK

- Ikasleen **hizkuntza komunikaziorako gaitasuna** garatzea eta hobetzea, esparru formalean zein informalean, gizarteko eremu guztietan erabiltzeko gai izan daitezen.
- Ikasleak **euskararen eta euskal kulturaren** transmisioa ardatz dutela heztea, Orioko errealitatetik abiatuta munduko errealitatera agertzeko.
- Bere **irteera profilean** bizitzako eremu guztietan **euskaraz** eta **gaztelaniaz** egoki eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasun nahikoa izango duten ikasleak heztea, eta horrez gain, **atzerriko hizkuntza batean**, gutxienez, gai izatea esparru akademikoan, pertsonalean eta gizarte esparruetan modu egokian komunikatzeko.
- Euskararekiko **motibazioa** eta **jarrera positiboa** duten gizabanako euskaldunak heztea, euskara eta euskal kultura sendotzeko, garatzeko eta transmititzeko prozesuan parte har dezaten.
- Ikastetxeko hizkuntza eta **kultur aniztasuna** balioestea, ikasleek duten aberastasunari bere tokia emanez.
- **Eskola komunitatea euskararen normalizazio prozesuaren eragile** izatea inguruko komunitatean, eta, horretarako, bestelako gizarte-eragile zein askotariko elkarteekin lankidetzan jardutea.

## HELBURU ZEHATZAK

- **Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuari** buruzko hausnarketa egitea eta egungo egoeraren diagnostikoa egin ondoren, berridaztea eta ikastetxean zabaltzea.
- **Hizkuntzen irakaskuntzari** dagokionez, **era bateratuan eta koordinatuan** egitea etapa eta maila guztietan: idatzizko eta ahozko ekoizpenei arreta berezia eskaintzea eta programazioak zein ebaluazio irizpideak curriculum berriaren arabera adostea.
- **Irakurmenaren** hobetzea, irakurketaren ulermenari tarte gehiago eskainiz arlo guztietan.
- **Irakurzaletasuna** sustatzea eta liburutegia irakaskuntza-ikaskuntzarako gune aktibo bilakatzea.
- **Ikastetxeko curriculum** aberastea, euskara eta euskal kultura bultzatzeko.
- Ikasleen **etxeko hizkuntzak** ikusgai jartzea, hizkuntz aniztasuna eta kultur aniztasuna bultzatuz.
- **Euskararen komunikazio gaitasuna** garatzea eta euskararekiko jarrera positiboa lantzea.
- **Normalkuntza** dinamiketan Eskola Komunitatea osatzen duten kide guztiek parte hartze handiago izatea, hizkuntza eta kultura transmisioa bermatzeko.

## IKASLEAREN HIZTUN PROFILA

Komunikazio gaitasuna eta ikasleen irteera profila lotzen dituen helburuak ondo zehazten du jomuga: bizitzako eremu guztietan euskaraz eta gaztelaniaz egoki eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasun nahikoa izango duten ikasleak hezteko, eta horrez gain, atzerriko hizkuntza batean, gutxienez, gai izatea esparru akademikoan, pertsonalean eta gizarte esparruetan modu egokian komunikatzeko.

Gure ikastetxeko etapak kontuan hartuta eta Europako Markoa erreferentziazat hartuta, honako hau da gure mailakatzea:

	LEHEN HEZKUNTZA amaitzean	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA amaitzean
EUSKARA	B1	B2
GAZTELANIA	B1	B2
INGELESA	A2	B1



## HIZKUNTZA ARLOAREN TRATAERA

### HIZKUNTZEN TRATAERA INTEGRATUA ETA INTEGRALA

Zaragueta Herri Eskolaren Hizkuntza arloaren helburu nagusia bizitzako zeregin askotarikoetan ekiteko ikaslearen komunikazio-kompetentzia garatzea da. Helburu horri erantzunez, Hizkuntzak eta Literatura ikas arloaren curriculumaren oinarria hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboan datza; bestela esanda, hizkuntza erabiltzen ikastea izango da kompetentzien definizioaren zein edukien hautaketaren oinarria.

Euskaran ardaztutako eleaniztasuna garatu nahi bada, ezinbestekoa da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horren batera doan curriculum bateratua gauzatzea. Ondo zehazten da *Irakasleen prestakuntza gogoetatsua, hezkuntza berritzeko giltza* (Lizarralde; Azpeitia; Ozaeta; 2021) liburutik hartutako aipamen honetan:

Hizkuntzen trataera integratuz hitz egiten dugu ikaskuntzaz eta irakaskuntzaz berariaz ari garenean. Zer da hizkuntzen trataera integratua? Ez da metodologia bat, ez da proiektu bat. Zer da orduan? Hizkuntzen didaktikaren barruko ildo bat da. Oinarrian Cummins (1979, 2000) interdependentziaren hipotesia dauka, eta eskatzen du hizkuntzen arteko transferentziak probokatzea. Horretarako ezinbestekoa da hizkuntza desberdinen irakaskuntza modu bateratuan diseinatu eta inplementatzea, alegia, ikastetxean ikasteko eta irakasteko erabiltzen diren hizkuntza guztiek printzipio metodologikoak eta ikuspegi didaktikoa konpartitzea eta haien artean banatzea hizkuntza-edukiak.

Ikusmolde honetan, hizkuntzen ikuspegi komunikatibo eta diskurtsiboa aldarrikatzen dugu. Bronckarti jarraituz (2007a), hizkuntza-ekoizpena ulertzen dugu gizakiaren jardunarekin harremanetan, hiztunak bere hizkuntza-ezagutzak mobilizatzen ditu egoera komunikatibo zehatz eta erreal bati erantzuteko eta hizkuntza-ekoizpena testu bidez egiten du. Hortaz, testu-genero bidezko irakaskuntza eta ikaskuntza izango da ikasleen komunikazio-gaitasuna trebatzeko bide eraginkorra (Dolz & Schnewly, 1997). Zergatik? Batetik, testuak gizartean sortu diren komunikazio-unitateak direlako, gizarteak unean-unean dituen behar komunikatiboei erantzuteko, alegia, gizartean partaide izateko behar direlako. Bestetik, ikasleak jartzen dituelako egoera komunikatibo zehatzei erantzun testual egokia emateko egoeran eta aukera ematen diolako irakasleari testuaren alderdi guztiak modu sistematikoan lantzeko. Eta azkenik, hizkuntzen alderdi diskurtsiboak hizkuntza batetik bestera transferitzen direlako (Idiazabal & Larrigan, 1997; Manterola, 2010). Transferitzen dira, besteak beste, testuaren egitura, alderdi diskurtsiboak (koherentzia eta kohesioari dagozkion irizpideak), ulermen estrategiak, hizkuntzaz besteko alderdiak (begirada, tonua, ahotsa, gorpuzkera...).

Baina hizkuntza irakasleak ez dira euskara ardatz hartuta eleaniztasuna garatzen konprometitutako bakarrak, eta eskola osoa dago inplikaturik hizkuntzen trataera integralean. Hizkuntza gaiak ematen ez dituzten irakasleen ardura ere bada hizkuntza kompetentzia garatzen laguntzea, ikasleak arlo bakoitzeko egoerak egoki eta eraginkor ebatzi ahal izan ditzan. Arlo horietako oinarriko kompetentziak lortzeko, ikasleak edukiarekin batera ikasi

behar ditu arloak berezko dituen esamoldeak, eta modu integratuan erabili behar ditu bakoitzeko egoerak/problema ebazteko. Edukia eta hizkuntza integratzeko planteamenduak hizkuntza kompetentzia garatzea dakar.

## METODOLOGIA

Hizkuntza arloaren curriculumak hezkuntza-kompetentzia orokorren arabera diseinatzeak, ikuspegi diskurtsiboan oinarritzen den metodologiaren hautua egitea eskatzen du. Ikuspegi horren arabera, hitz egitea eta idaztea komunikazio-testuinguruaren baitan, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak eraikitzea da. Horrek zuzeneko eragina du metodologia-erreferentzia jakin batzuen artean hautua egiterakoan, hartara, ondoko irizpideok kontuan hartu dira:

- Ikaskuntza, komunikazio-egoera esanguratsuak ahalbideratzen dituzten proiektuetan oinarritzea.
- Testu-generoak hizkuntza arloaren eduki nagusia izatea. Testu-genero bakoitzak berriazko ezaugarriak ditu, beraz, bere ulermen eta ekoizpenerako ikaskuntza espezifikoak lantzea eskatzen du.
- Ikaskuntza sekuentzia didaktikoetan egituratzea. Honen bidez, jarduerak komunikazio lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatu eta artikulatzen dira.
- Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena nagusitzea; hizkuntza ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea.
- Gramatikaren trataera, funtzionala eta kontestualizatua izatea. Hau da, gramatika, dugun zereginari erantzuteko baliabidea izatea.
- Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina indartzea, ikasgela komunikazio testuinguru erreala bihurtu dadin.
- Lankidetzazko ikaskuntza indartzea. Proposatzen diren zereginetan, ikasketa autonomoaz gain, ikasketa kooperatiboa bideratzen duten ikasleen taldekatze motak potentziatzea.

## EBALUAZIOA

Komunikazio kompetentziaren garapena xede duen hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzak, helburuen eta edukien trataeran aldaketa sakonak eta hautu metodologiko jakinak eskatzen ditu. Ebaluazioa litzateke eraldaketa kate horren funtsezko

begia; azken finean, bertan hartutako erabakiek atzerakako eragin handia dute, “zer ebaluatu, hura irakatsi” esaera ezagunak dioen moduan.

Ebaluatzeko moduek eta erabilitako irizpideek markatzen dute, ezinbestean, curriculumaren garapen osoa. Ezagutzen ebaluaziotik kompetentzien ebaluaziora doan bidea egitea funtsezkoa da, hizkuntzen irakaskuntza-ereduaren eraldaketa arrakastaz egin ahal izateko. Ikuspegi honi erantzungo dion ebaluazioak, honako ezaugarriak bete behar ditu:

- Hezitzailea: heziketa-prozesuaren muinean kokatzen dena, eta ez azken muturrean soilik.
- Integrala: kompetentzia komunikatiboaren osagai guztiak kontuan hartzen dituena.
- Kontestualizatua: hizkuntza giza ekintza jakin baten komunikazio-testuinguruan txertatuta aztertzen duena, eta ez elementu formal abstraktu gisa.
- Testuala: giza ekintza horren baitan sorturiko testua, hausnarketa-unitatetzat hartzen duena.
- Mota askotarikoa: osagai eta egoera bakoitzeko ebaluazio une eta mota egokiena erabiltzen duena.
- Prozesuala: ikaskuntzen erregulatzailer-funtzioan oinarritutakoa.
- Partekatua: elkarrekintza ardatz izanik, ikasleari partaidetza eskaintzen diona.

# **PLAN ESTRATEGIKOA**

## **2022-2026**

## HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EREMUA

Eremu didaktiko metodologikoa

### ↓ HELBURUA ↓

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuari buruzko hausnarketa egitea eta egungo egoeraren diagnostikoa egin ondoren, berridaztea eta ikastetxean aplikatzea.

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartzaileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Hizkuntz Proiektua idatzi.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakasleei galdetegia egin eta eremu didaktiko metodologikoari buruzko ondorioak aztertu.</li> <li>- Hizkuntz Proiektuari buruz hausnartu eta idatzi, HNPTik ateratako ondorioak txertatuz.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza. Eleaniztasunerantz-eko koord.</p> <p>2021-2022</p>	<p>Zuzendaritza. Klaustroa. Hizk. Batz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Galdetegiak.</li> <li>- Berritzeguneko aholkularia.</li> <li>- Ereduak.</li> <li>- Hizkuntz Proiektua egiteko gida.</li> </ul>	<p>Abendurako galdetegia egitea. Martxoan HNPko ekarpenak gehitzea.</p>	<p>Martxo bukaerarako proiektua idatzita egotea.</p>
<b>Hizkuntz Proiektua ikastetxean zabandu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntz Proiektua sites batean argitaratu.</li> <li>- Klaustroan azaldu.</li> <li>- Eskolako hainbat bilgunetan (etapa bilerak, mintegiak...) zabandu eta eginkizunak zehaztu.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza. Eleaniztasunerantz-eko koord.</p> <p>2021-2022</p>	<p>Zuzendaritza. Hizk. Batz. Zuzend. Klaustroa. Organo Gorena (OOG)</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntza Proiektuaren dokumentua.</li> <li>- Sites-a web-orrian.</li> </ul>	<p>Urtean zehar lantzea eta ekarpenak jasotzea.</p>	<p>Maiatzean aurkezpena egitea: Klaustroa OOG</p>

↓ HELBURUA ↓

Hizkuntzen irakaskuntzari dagokionez, era bateratuan eta koordinatuan egitea etapa eta maila guztietan: idatziko eta ahozko ekoizpenei arreta berezia eskaintzea eta programazioak zein ebaluazio irizpideak curriculum berriaren arabera adostea.

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartza ileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Piktoidazketa metodologia ezagutu eta gelako jardunear aplikatu LHko 1. zikloan.</b>	- Piktoidazketa proiektu pilotoan parte hartu, LHko 1. zikloan.	Zuzendaritza.  2021-2022	LHko 1. zikloko irakasleak ikasleak	- EHUko adituak - Proiektuko materialak.	Urtean zehar proiektuaren ebaluazioa egitea.	Ikasturte amaieran proiektuaren memoria egitea.
<b>Ahozotasuna eta idazmena lantzeko eta ebaluatzeko prozedurak bateratzea LHko 3. zikloan eta DBHko 1. zikloan.</b>	- Diagnostikoa egin geletako behaketaren bidez. - Formakuntza hizkuntzetako irakasleentzat HTBren inguruan. - Idatziko testuak sortzeko estrategiei eta baliabideei buruzko tailer praktikoa gauzatu ikasleekin.	Zuzendaritza. Eleaniztasunerantz-eko koordinatzailea.  2021-2022 2022-2023an jarraipena	Irakasleak ikasleak	- ELEBILABeko adituak. - Berritzeguneko aholkulariak. - Galdetegiak. - Geletako behaketak	Abenduan irakasle guztiei HTBari buruzko sarrera orokorra egitea. Otsailean galdetegiak osatuta egotea. Martxoan behaketak eginda egotea. Apirilean behaketen sintesia eta irakasleon hausnarketa	Ikasturte amaieran formakuntzaren balorazioa egitea.
<b>Ekoizpenaren programazioak bateratu curriculum berriaren arabera.</b>	- ELEBILABen formakuntzaren bigarren urtea.	Zuzendaritza. Eleaniztasunerantz-eko koordinatzailea.  2022-2023an hasi eta urtez urte	Irakasleak ikasleak	- ELEBILABeko adituak. - Curriculumak - Programazioak	Formakuntza jarraitzea	Formakuntzaren balorazioa egitea. Programazioetan aldaketak islatzea.
<b>LHn eta DBHn ebaluazio irizpideak bateratu errubriken bitartez.</b>	- Ereduak aurkeztu eta aztertu. - Ereduak egokitu, geureganatuz. - Testu mapa adostu hiru hizkuntzen artean.	Zuzendaritza Eleaniztasunerantz-eko koordinatzailea.  Urtez urte	Irakasleak	- Ereduak	Urteko planean planteatutako helburuak mintegian lantzea.	Urtez urte planteatutako helburuak betetzea eta ebaluatzea.

	- Errubrikak adostu hiru hizkuntzen artean.					
--	---	--	--	--	--	--

↓ HELBURUA ↓

**Irakurmenaren hobetzea, irakurketaren ulermenari tarte gehiago eskainiz arlo guztietan.**

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartza ileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Irakurmenaren ulermena gehiago sustatu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurtzeko estrategia eta baliabideei buruzko formakuntza.</li> <li>- Irakurmenari denbora gehiago eskaintzea ikaskuntza irakaskuntza jardunean.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza</p> <p>Urtez urte</p>	Mintegiak Irakasleak	Adituen formakuntza	Formakuntza jasotzea. 2023-24	Irakurketa berariaz islatzea programazioetan.
<b>Liburuaren irakurketa ebaluatzeko probak bateratu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Askotariko probak ezagutu eta adostu hiru hizkuntzetarako egokiak izan daitezkeenak.</li> <li>- Proba horien ebaluazio irizpideak adostu eta bateratu hiru hizkuntzen artean.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza</p> <p>DBHko Hizkuntza Mintegia</p> <p>2022-2023</p>	Irakasleak Ikasleak	Ereduak	1. hiru hilekoan mintegian lantzea eta adostasunak lortzea.	Erabakiak programazioetan islatzea.

↓ HELBURUA ↓

**Irakurzaletasuna sustatzea eta liburutegiak irakaskuntza-ikaskuntzarako gune aktibo bilakatzea.**

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartza ileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Liburutegia ikaskuntza-irakaskuntzarako gune aktibo bilakatu (LHko 3. zikloa / DBH)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informatika gela (zaharra) liburutegi gisa atondu eta baliabide egokiz hornitu.</li> <li>- Gelako hainbat jarduera aurrera eramateko liburutegia erabili.</li> <li>- Mailegu sistemarekin hasi.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza Eleaniztasunerantz-eko koord.</p> <p>2021-2022ean hasi eta urtez urte.</p>	<p>Zuzendaritza Guraso Elkarte Irakasleak Ikasleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburutegi berria.</li> <li>- Altzariak.</li> <li>- Ordenagailuak.</li> <li>- Liburuak.</li> </ul>	<p>Urtarrilean iburutegia irekitzea eta liburuak excel-eko zerrendan txertatzea. Otsailean mailegutzarekin hastea.</p>	<p>Ekainean, liburutegiaren erabileraren balorazioa egitea (irakasle-ikasle)</p> <p>Urtez urtez liburu bilduma osatzen joatea eta jarduerak gehitzea.</p>
<b>Beheko liburutegia prestatu erabilgarri izan dadin. (HH / LHko 1. eta 2. zikloak)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beheko liburutegia egoki atondu eta baliabide egokiz hornitu.</li> <li>- Irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak egin, gurasoak inplikatur (irakurraldietan parte hartzaile, tertuliak...)</li> </ul>	<p>Zuzendaritza Hizkuntza Departamentua</p> <p>Urtez urte</p>	<p>Zuzendaritza Guraso Elkarte Irakasleak Ikasleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Liburutegi berria.</li> <li>- Altzariak.</li> <li>- Ordenagailuak.</li> <li>- Liburuak.</li> </ul>	<p>2021-2022 zehar osatzen joatea.</p>	<p>2022ko ekainean espazioa erabilgarri uztea, 2022-2023 hasieran erabiltzen hasteko.</p> <p>Urtez urtez liburu bilduma osatzen joatea eta jarduerak gehitzea.</p>
<b>Irakurketa plana eguneratu eta ezagutarazi.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etapa bakoitzeko irakurketa mailan eta sekuentziazioan sakondu</li> <li>- Urrats bakoitzeko indartze neurriak areagotu.</li> <li>- Irakurriaren ulermeneko estrategiak ezagutu eta ikasleen artean partekatu.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza Hizkuntza Departamentua</p> <p>2023-2024</p>	<p>Irakasleak Ikasleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irakurketa Planaren dokumentua.</li> <li>- Formakuntza (zehazteke).</li> </ul>	<p>Urtean zehar dokumentua berrikustea.</p>	<p>Proposatutako estrategien eta indartze neurrien balorazioa egitea.</p>



↓ HELBURUA ↓

**Ikastetxeko curriculuma aberastea, euskara eta euskal kultura bultzatzeko.**

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartza ileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Euskal kultura ezagutzea eta horretaz gozatzea, ikasleak transmisiorako bide izan daitezzen.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kantu saioak egin hilabetean behin (HH, LH)</li> <li>- “Idazleak Ikastetxeetan” programan parte hartu (HH, LH, DBH)</li> <li>- “Eskola Kultura” ekimenean parte hartu (DBH)</li> <li>- “Musikariak Ikastetxeetan” programan parte hartu (DBH)</li> <li>- “Zinema euskaraz” ekimenean parte hartu (DBH).</li> </ul>	<p>Zuzendaritza HNPko koord. Eleaniztasunerantz-e ko koord.</p> <p>Urtez urte</p>	<p>Irakasleak Ikasleak Kanpoko eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Idazleen Elkarte (EIE).</li> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundia.</li> <li>- Hezkuntza Saila.</li> <li>- Tinko Euskara Elkarte.</li> </ul>	<p>Urtean zehar antolatzea.</p>	<p>Ekimena burutzea eta ebaluazioa egitea.</p>
<b>Ikasleak eskola orduetan hizkuntzaren alderdi artistikora zein ludikora gerturatu.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola orduetan tailer modura antolatu hainbat jarduera: <ul style="list-style-type: none"> <li>- bertsolaritza</li> <li>- irrati tailerra</li> <li>- antzerki tailerra</li> <li>- ...</li> </ul> </li> <li>- “Nitik Gura” idazketa tailerra egin LH6. eta DBH2. mailetan</li> </ul>	<p>Zuzendaritza Eleaniztasunerantz-e ko koord.</p> <p>Urtez urte</p>	<p>Irakasleak Ikasleak Kanpoko eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertso Elkarte</li> <li>- Yolanda Arrieta idazlea.</li> <li>- Ixabel Agirresarobe</li> </ul>	<p>Urtean zehar antolatzea.</p>	<p>Ekimenak burutzea eta ebaluatzea.</p>
<b>Orioko curriculumaren lanketa berrikustea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- “Orioz blai” jolas bildumarekin hasi (<i>Baleatik baleara</i>) eta ikasleak</li> </ul>	<p>Zuzendaritza</p> <p>Urtez urte</p>	<p>Irakasleak Ikasleak Kanpoko eragileak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eñaut Aiarzagunea</li> </ul>	<p>2021-2022 ikasturtean zehar “Orioz blai” jolas bilduma lantzen</p>	<p>Ikasturte bukaeran <i>Baleatik baleara</i>-ren ekoizpena burutzea eta herrian</p>

eta inplementatzen jarraitzea.	inplikatzen sortze prozesuan (DBH). - Aurreko urteetan egindako lana berreskuratu, berrikusi eta curriculum berriaren programazioetan txertatu.				joatea (Lehenengoa <i>Baleatik baleara</i> )	zabaltzea.
--------------------------------	--	--	--	--	--	------------

## ↓ HELBURUA ↓

**Ikasleen etxeko hizkuntzak ikusgai jarri, hizkuntz aniztasuna eta kultur aniztasuna bultzatu.**

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartza ileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Ikasle etorri berrien jatorria aintzat hartu eta ezagutarazi.</b>	- Ikasle etorri berriek euren herrialdeari, hizkuntzari, kulturari...buruzko azalpena prestatu (HIPI saioetan) eta gelan aurkeztu.	Hizkuntza Mintegia HIPI irakaslea  Urtez urte	Irakasleak Ikasleak	- Berritzeguneko Aholkularitza - Euskarri digitalak	HIPI saioetan lantzea	Ikaskideen aurrean aurkeztea
<b>Ikasleen etxeko hizkuntzen presentzia areagotu.</b>	- Korridoreetan hitzak eta esamoldeak agerrarazi. - Jatorrizko hizkuntzetako liburuak eskuratu eta eskaini. - Liburu Egunean gurasoak euren hizkuntzan ipuinak irakurtzera gonbidatu.	Zuzendaritza Hizkuntza Departamentua  Urtez urte	Irakasleak Ikasleak Gurasoak	- Horma-irudiak - Liburuak	Urtean zehar geletan lantzea Liburuak eskuratzea	Ekimenak burutzea eta ebaluatzea.

## HIZKUNTZA PROIEKTUAREN EREMUA

Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua HNP

### ↓ HELBURUA ↓

Euskararen komunikazio gaitasuna garatzea eta euskararekiko jarrera positiboa lantzea.

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartza ileak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Ahozko euskara formala zein informala lantzea eta gehiago erabiltzea.</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskola orduetan tailer modura antolatu hainbat jarduera: <ul style="list-style-type: none"> <li>- bertsolaritza</li> <li>- irrati tailerra</li> <li>- antzerki tailerra</li> <li>- ...</li> </ul> </li> <li>- Ahozkotasunaren inguruko formazioa jaso</li> </ul>	<p>Zuzendaritza</p> <p>Urtez urte</p>	<p>Irakasleak</p> <p>Ikasleak</p> <p>Kanpoko eragileak</p>	<p>Kanpoko eragileak</p> <p>EBETE elkarte</p> <p>Euskarri digitalak</p> <p>Irrati-mahaia.</p>	<p>Urtean zehar antolatzea.</p>	<p>Ekimena burutzea eta ebaluazioa egitea.</p>
<b>Ikasleen eta irakasleen arteko komunikazio hizkuntza euskara izatea, modu naturalean</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarazko interakzioa sustatzen duten guneak maiztasunez eragin: HHn "topagunea", tutoretzetan...</li> </ul>	<p>Zuzendaritza</p> <p>Irakasleria</p> <p>Urtez urte</p>	<p>Eskola</p> <p>Komunitatea</p>	<p>Eskola</p> <p>komunitatea</p>	<p>Urteko planean planteatutako helburuak lantzea.</p>	<p>Urtez urte planteatutako helburuak betetzea eta ebaluatzea.</p>
<b>Ikasleak eskolaz kanpoko ekintzetan euskaraz jardutea modu naturalean</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aisialdiarekin lotutako askotariko ekintzak (zirkua, judo, eskola kirola...) eskaini euskaraz aritzeko.</li> </ul>	<p>Zuzendaritza.</p> <p>Guraso Elkarte.</p> <p>Urtez urte.</p>	<p>Eskola</p> <p>Komunitatea</p>	<p>Kanpoko eragileak</p>	<p>Urteko planean planteatutako helburuak lantzea.</p>	<p>Urtez urte planteatutako helburuak betetzea eta ebaluatzea.</p>

↓ HELBURUA ↓

**Normalkuntza dinamiketan Eskola Komunitatea osatzen duten kide guztiek parte hartze handiago izatea, hizkuntza eta kultura transmisioa bermatzeko.**

Helburu zehatzak	Jarduerak	Arduraduna(k) eta denbora-epeak	Parte-hartzai leak	Giza-baliabideak eta baliabide materialak	Ebaluazioa	
					Jarraipen-adierazleak [onartze-maila]	Lorpen-adierazleak [onartze-maila]
<b>Eskola komunitateari (langileriari, familiei, ikasleei...) ikastetxea eremu euskalduna dela gogoraraztea, euskaraz bizitzera gonbidatzeko.</b>	- Irakasle ez diren langileengan eragiten jarraitu.	Zuzendaritza. HNP.  Urtez urte.	Eskola Komunitatea.	Eskola Komunitatea. HNPko planaren dokumentua.	Urteko planean planteatutako helburuak lantzea.	Urtez urte planteatutako helburuak betetzea eta ebaluatzea.
<b>Gurasoengana iristeko plana eguneratzea, familien parte hartzea eta hizkuntzarekiko sentiberatasuna areagotzeko.</b>	- EBETEk proposatutako hainbat sentsibilizazio jarduera egin. - Euskararen Egunean gurasoek euskararekin izandako bizipenak kontatzera gonbidatu.	Zuzendaritza. Guraso Elkartea HNP Batzordea	Eskola Komunitatea.	Eskola Komunitatea. EBETE. HNPko planaren dokumentua.	Urteko planean planteatutako helburuak lantzea.	Urtez urte planteatutako helburuak betetzea eta ebaluatzea.

## BIBLIOGRAFIA / WEBGRAFIA

- *Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_sist\\_educativo/eu\\_def/adjuantos/000009e\\_Pub\\_EJ\\_heziberri\\_2020\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_sist_educativo/eu_def/adjuantos/000009e_Pub_EJ_heziberri_2020_e.pdf)
- *Ikastetxearen hizkuntza proiektua egiteko gida*. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, 2016  
[https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/hizkuntza\\_proiektua/5002016001e\\_Pub\\_EJ\\_gida\\_hizpro\\_e.pdf](https://www.berrigasteiz.com/monografikoak/hizkuntza_proiektua/5002016001e_Pub_EJ_gida_hizpro_e.pdf)
- Zarauzko Berritzeguneko Hizkuntz Proiektuari buruzko sites-a:  
<https://sites.google.com/view/hizkuntzaproiektua/hizkuntza-proiektua>
- *Irakasleen prestakuntza gogoetatsua, hezkuntza berritzeko giltza*. PEREZ LIZARRALDE, Karmele; AZPEITIA EIZAGIRRE, Agurtzane; OZAETA ELORZA, Arantza. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, 2021